

## LANKIDETZA-HITZARMENA

.....(e)n, 2021eko .....(a)ren .....(e)an

### BILDUTA

#### Alde batetik:

Jauna/Andrea:....., adinduna, .....IFZ duena

#### Bestetik:

Jauna/Andrea: ..... , adinduna, ..... IFZ duena

### ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak .....erakundearen izenean eta ordezkari gisa, haren..... den aldetik. Erakundea Elkarteen Erregistroan izena emanda dago, eta hauek dira haren IFK eta helbide fiskala: .....

Bigarrenak .....enpresaren izenean eta ordezkari gisa, haren.....den aldetik. Hauek dira enpresaren IFK eta helbide fiskala:.....

Bi alderdiek elkarri legezko gaitasun nahikoa aitortzen diotelarik hitzarmen honetarako,

### ADIERAZTEN DUTE

- I. ....erakundeak Lagundutako Enplegurako proiektu bat sustatu eta gauzatu duela.
- II. Proiektu horren helburu nagusia dela (**IZEN ABIZENAK**) desgaitasun duen pertsonak laneratzea, Lagundutako Enpleguaren metodologiaz baliatuz.
- III. Erakunde sustatzaileak behar diren ekintza guztiak egingo dituela, desgaitasuna duen pertsona lanpostura egoki dadin.
- IV. Ez erakunde sustatzaileak, ez erakunde enplegu-emaileak ez dutela inolako ordain ekonomikorik jasoko, programa honetan sartzen diren ekintzen truke.
- V. Enpresa enplegu-emaileak lan-prestakuntzarako ekintzak onartzeko eta errazteko konpromisoa hartzen duela, bai eta barne-laguntzari bide ematekoa ere, laneratze-prozesuak iraun artean.
- VI. Hauek izango direla lan-prestakuntzarako ekintzak:
  - Lanpostuari dagozkion trebetasunez jabetzeko estrategiak garatzea.
  - Gainerako lankideekiko gizarte-elkarrekintza sustatzea.
  - Zehaztutako lan-plana enpresak izendatutako arduradunarekin koordinatzea.
  - Programaren segimendua eta ebaluazioa egitea.
- VII. Aipatutako desgaitasunak dituzten pertsonak lan-munduan behar bezala txertatzeko ekintzak garatzeko, aurreikusita dagoela, alde aurretik, pertsona horiek **hilean XX** orduz prestatzea, denbora-tarte batean (**hasiera-data/amaiera-data**). Dena den, horretan emandako denbora aldatzeko aukera izango da, enpresan lanean hastearekin zerikusia duten beharrak zer-nolakoak diren. Halakorik gertatuko balitz, ordutegi-aldaketa atxiki beharko litzaioke hitzarmenari, aldaketa zer denbora-tarteri dagokion zehaztuta.

Eta aurrean esandako guztiarekiko adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek, nor bere izaera duela, hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Entitatearen sinadura

Enpresaren sinadura